

Erdi Paleolitoa



GIZAKIA



JANZKERA



ASENTAMENDUAK



KLIMATOLOGIA



FAUNA ETA
LANDAREDIA



EKONOMIA



GARAPEN
TEKNIKOA



PORTAERA
SINBOLIKOA

KRONOLOGIA: 100.000/35.000 B.P.

GIZAKIA: Homo sapiens neanderthalensis edo Neanderthal gizakia izan zen garai honetan nagusi. Oraindik ez dago erabat garbi nondik eboluzionatu zuen gizaki-mota honek, eta zergatik ordezkatu zuen gure tankerako gizakiak Erdi eta Goi Paleolitoen arteko igaroaldian.

JANZKERA: Landare-zuntzak (belarrak, lastoak, azala, hostoak) ahaztu gabe, larrua zen janzeran oinarritzko lehengaia, josi barik eta botoirik gabe, korapilo bidez lotua. Oinetakoei buruz ezer gutxi esan daiteke; agian artean ez zituzten erabiltzen. Aurreko aldiarekin alderatuta, tendoiak edo animalien ileak gehiago erabiltzen ziren, ehiza areagotu eta gizakiaren portaera konplexuago bihurtu zelako.

ASENTAMENDUAK: Talde hauen asentamenduak, atari zabalean, erreketatik gertu eta, batzuetan, bertako terrazen gainean eraikitako behin-behineko kanpalekuak ziren gehienbat. Beste askotan, harpe edo haitzuloetan egokitzen ziren aterpe soilak, adarrez eginiko egitura larraz estalita. Ez dago pentsatzerik hiruzpalau etxola baino gehiago egongo zenik kanpaleku bakoitzean, eta erdi-erdian sua izaten zuten. Taldeak, aurreko aldiaren baino pixka bat handiagoak izan zitezkeen, normalean 8/10 gizabanako bitartekoak.

KLIMATOLOGIA: Epe zabal honetan, denetariko egoera klimatikoak izan ziren, hotzak eta epelak (batzuk egungoak baino are epelagoak).

FAUNA ETA LANDAREDIA: Egoera epela baldin bazen, animalien artean zerbidoak, basurdeak eta uroak topa zitezkeen besteak beste. Basoak, berriz, zuhaitz hostogalkorrek osatzen zituzten –hurritza, haritza, gaztainondoa, etab.– eta paisaia belardi berde altuek osatu. Garai hotzetan, Behe Paleolitoan deskribatutakoaren oso antzekoa zen egoera. Mamuta edo elurretako erbia bizi ziren gure inguruan besteak beste. Zuhaitzak urriak ziren, gehienak koniferoak, eta paisaia gaur egun ezagutzen dugun tundra edo estepa hotzak osatzen zuen.

EKONOMIA: Harrapariak ziren gizakiak, baina oportunistak edo espezializatu gabeak. Eskura zutena ehizatzen eta biltzen zuten (agian haratustela edo sarraskia ere bai, behar izanez gero). Zaldia, oreina, basahuntza, bisontea eta uroa ziren gehien ehizatutako animaliak. Ustiakuntza-sistema ez zegoen batere

orekatua, eta ondorioz, seguruenik nahikoa gosea pasatzen zuten batez ere neguko hilabeteetan.

GARAPEN TEKNIKOAK: Oraindik teknologia harrizko tresnerian zentratuta zegoen soilik (punta, karraskagailu eta hortzak dira ugarien agertzen diren tresnak). Teknika berria garatu zen harria lantzeko, hain zuzen, Levallois izenekoa, aurrez pentsatutako erako printzak egiteko. Hezurrezko tresnak asmatu gabe zeuden oraindik. Zurezkoak, ostera, hasita zeuden erabiltzen.

PORTAERA SINBOLIKOAK: Euskal Herrian ez bada ere, Neanderthalen ehorzketa batzuk ezagutzen ditugu jada, nahiz eta lehenengo erritu batzuk baino ez izan. Oraindik ez dago benetako arterik.

AZTARNATEGI GARRANTZITSUENAK:



Arrillor (Murua): 1989 eta 1995 bitartean A. Saenz de Buruagak indusitako kobazuloa. Oso estratigrafia sendoa dauka (sei metro eta 21 maila, gehienak aztarna arkeologikoekin).

Axlor (Dima): Ez dago Arrillor-etik oso urruti, haitzulo biak Gorbeia mendiaren magaletan kokatzen baitira. Lehenengo indusketa J.M. Barandiaranena izan zen (1969-1974), eta azken urteotan (2000tik aurrera) J.E. Gonzalez eta J.J. Ibañezek zuzentzen dute bertako premiazko indusketa. Nahiko leku aberatsa da.

Olha (Kanbo): Olhako indusketa-ekinaldiak E. Passemardek zuzendu zituen 20ko hamarkadan. Olha ez da benetako kobazuloa, harpe luzea baizik.

Amalda (Zestoa): 1979 eta 1984 bitartean J. Altunaren zuzendaritzapean industria. Haitzulo honetako maila arkeologiko batean, VII.ean hain zuzen, Mustier aldiko asentamendu garrantzitsua topatu zen.